



Getxo

ANDRÉS ISASI MUSIKA ESKOLA

bizi ezazu

MED

Musika Eskola Digitala

25 urte
agoz

Zenb./Nº 9
Urtea/Año 2012
Ekaina/Junio

HARI-TRESNEN ORKESTREN STAGE-A TORRELAVEGAN

Beste urte batez, Musika Eskolako hari-tresnen orkestrek beste zentro batekin trukea prestatu dugu. Oraingoan, Torreavegako Musika Kontserbatorioarekin izango da datorren ekainaren 9an joango gara bertara. Kontzertua 19:30ean izango da Cinema Solvay delakoan, eta bi zentroetako taldeek hartuko dute parte. Errepertorioa zabala izango da: Barroko musikatik pasatuz (Haendel, Bach...), erritmo nabarmeneko obrak entzun ahal izango dira: Reel, Argentinaiko Zamba, vals, mamboa... geure ikasleen gaitasun instrumental eta musikalki erakusteko asmoz.

Aukeraz ballaturik eta beraien arteko harremanak sendotzeko asmoz, asteburua Llaneseko bisitaldi batekin beteiko dugu; bertan dugu ostaturia hartuta igandera arte.

Beti bezala, Torreavegako Kontserbatorioari gonbidapena luzatzen diogu datorren urtean bisita itzul dezaten.

BI GETXOTAR IZAN DIRA SARITUAK JOAN DIREN MAIATZAREN 12 ETA 13AN OSPATU DEN BILBOKO KONTSERBATORIOAK ANTOLATUTAKO "JUAN CRISÓSTOMO DE ARRIAGA LEHEN GITARRA-LEHIAKETA"-N.

8 eta 21 urte bitarteko 51 mutil eta neska izan dira Estatu osotik etorri direnak joan diren maiatzaren 12 eta 13an ospatu den Bilboko Kontserbatorioak antolatutako "Juan Crisóstomo de Arriaga Lehen Gitarra-Lehiaketa"-n parte hartzera.

Lehiaketak, parte-hartzaileen adinaren arabera lau kategorian zituena: 8 eta 10 urte bitartekoa, 11 eta 13 urte bitartekoa, 14 eta 16 urte bitartekoa eta 17 eta 21 urte bitartekoa.

Lara Mansur Soldano "Andrés Isasi" Musika Eskolako gitarra-ikasleak, hirugarren saria lortu zuen I kategorian, lehiaketarako prestatu behar izan zituen lanak interpretatu eta gero. Idoia Aparicio Elizalde "Andrés Isasi" Musika Eskolan hasi zituen bere gitarrak ikasketak, gerora "Juan Crisóstomo de Arriaga" Kontserbatorioan erdi-mailako ikasketak egiten jarraitu zituelarik. Idoiak lehen saria lortu zuen III kategorian. "Andrés Isasi" Musika Eskolatik, zorianak bie.

IKASTURTE-AMAIERAKO KONTZERTUA

Formatua aldatu diogu aurten Ikasturte-amaierako Kontzertuari. Bakarra egingo dugu, Biotz Alai Plazan, ekainaren 19an 19:00etan, geure 25. urteurrena dela eta izan ditugun orotzapenezko ekitaldien itxiera gisa eta ekainaren 21ean izango den Musikaren Europar Eguna ospatzeko. Kontzertua Munduko Musikei buruzko kontakizuna izango da. Musika Eskolako taldeen emandiez izango da musikalki ilustratua.

Sarrera gisa, kalejira batekin hasiko dugu arratsaldea; Algortako Metroko Plazan hasiko da 17:30ean eta denok zaudete gonbidatuta. Jarraian, munduko musikan murgiltzen hasiko gara. Algortako Batzokiko patioan zenbait dantza ikasiz eta dantzatuz. Hauek amaitu eta gero, Biotz Alai Plazara hurbilduko gara, kontzertuaz gozatzeko. 25. urteurrena dela eta prestatu dugun abestia denok batera abestuta emango diogu amaiera ekitaldiari.

Biotz Alai Plazaren lekua mugatua da; horregatik, gonbidapena hartu beharko dugu Musika Eskolako atezaindegian, bertara sartu nahi izanez gero.

AGUR IKASTURTEARI

2011-12 ikasturtea amaitzera doa. Guretzat ez da ikasturte arrunta izan. Honekin, 25 urte bete ditugu Getxon lanean hasi ginetetik, dugun hobereana emanez, geure geletan zaudetenok eta egon zaretenok lengoia berria ikas dezazuen, musikaren lengoia, tresna, kantua edo, zuetako askoren kasu, hie zareteneko musika-taldea adierazpen-tresna modura erabili ahal izateko.

Elkar ikusi eta oso musika-une politak partekatu ditugu: ikasturtean zehar izandako entzunaldietan, geure 25. urteurrena ospatzeko lehen hiru hilabetean antolatutako errezitaldietan, Neguko Bidalaren kontzertuetan, geure kalejira eta Musika Eskolatik kanpoko emandaldietan... eta musikaren ikasketan nola aurreratzen dugun eta beste hainbeste kontuen inguruan solasean edo iritziak trukatzen.

Horregatik eta, beste ezer baino lehen, eskerrik asko erakutsi diguzuen konfiantzagatik, zuen laguntzagatik eta, zuetako askorentzat, datorren ikasturterako gure aldeko apustua berriz ere egiteagatik.

GOGORATU:

Hirugarren hiru hilabete honen jarduerak datorren 22an amaituko dira.

Datorren irailaren 10ean emango diogu hasiera ikasturte berriari. 2012-13 ikasturterako egutegia geure web-orrian ikus dezakezu. Irakasleek zurekin harremanetan jarriko dira datorren ikasturterako ordutegia jakinarazteko.

Hileko egutegia

Ekaina

a	a	a	o	o		i
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	

Jai-egunak

Eskolaren jarduerak

Jarduerak jai-egunetan

AGENDA

Ekaina

Ekainaren 1: Bilboko "Juan Crisóstomo de Arriaga" Kontserbatorioako, Gastelzko "Jesús Guridi" Kontserbatorioako, Erandioako Udal Musika Eskolako, Gemikako "Segundo Olaeta" Musika Eskolako eta Getxo "Andrés Isasi" Musika Eskolako gitarra-taldeen errezitaldia. 19:00etan. Sarrera doan.

Ekainaren 4: Kantu-ikasleen errezitaldia. 20:00etan. Sarrera doan.

Ekainaren 5: Piano-ikasleen errezitaldia. 19:45ean. Sarrera doan.

Ekainaren 9 eta 10: Hari-tresnen orkestren Stage-a Torreavegan. Kontzertua Cinema Savoy-n 19:30ean. Sarrera doan.

Ekainaren 11: Piano-ikasleen errezitaldia. 15:00etan. Sarrera doan.

Ekainaren 12: "Jesús Arambarri" eta "Andrés Isasi" Musika Eskolako flauta-taldeen errezitaldia. 19:45ean. Sarrera doan.

Ekainaren 14: Bertako tresnen ikasleen errezitaldia eta kalejira Aretako kaleetan. 19:00etan. Sarrera doan.

Ekainaren 15: Musikoterapia-ikasleen errezitaldia. 18:30ean. Sarrera doan.

Ekainaren 15: "Jesús Arambarri" eta "Andrés Isasi" Musika Eskolako flauta-taldeen errezitaldia Bilboko "Jesús Arambarri" Musika Eskolako Dantza-aretoan. 19:00etan. Sarrera doan.

Ekainaren 16: Kalejira Bilboko txistulariekin. Bilboko Alde Zaharrean. 11:00etan.

Ekainaren 19: Ikasturte-amaierako Kontzertua. Algortako Biotz Alai Plazan 19:00etan. Kalejira eta dantza herrikoak 17:30etik aurrera Algortako Batzokiko patioan. Kontzerturako sarrera gonbidapenarekin. Musika Eskolako atezaindegian jaso ditzakezu.

Ekainaren 20: Musika Eskolako bandaren errezitaldia Algortako Biotz Alai Plazan. 19:00etan. Sarrera doan.